



Ebazpena, Justizia eta Giza Eskubideen Sailako Zerbitzu zuzendariarena, zeinaren bidez herritarrei aurretiatzeko kontsulta egiten baitzaie Justizia arloko «Manuel de Irujo» saria arautzen duen Dekretuaren lanketari buruz.	Resolución del director de Servicios del Departamento de Justicia y Derechos Humanos por la que se somete a consulta previa a la ciudadanía la elaboración del proyecto de Decreto por el que se regula el Premio «Manuel de Irujo» de Justicia.
Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailak aurreikusita du Justizia arloko «Manuel de Irujo» saria arautzeko dekretu bat egiteko prozedura hasia.	El Departamento de Justicia y Derechos Humanos del Gobierno Vasco tiene previsto iniciar el procedimiento para la elaboración de un Decreto por el que se regula el premio «Manuel de Irujo» de Justicia.
Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, xedapen orokorra egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarki bat jarrita, eta herritarrei berriaz gonbidatuko zaie honako gai hauei buruzko informazioa eman dezaten:	De conformidad con lo establecido en el apartado 1 del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en el artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, con carácter previo a la elaboración de la disposición de carácter general se sustanciará una consulta pública, mediante anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, invitando expresamente a la ciudadanía a pronunciarse acerca de la información, que se extenderá sobre:
<ul style="list-style-type: none"> a) Onartzeko beharra eta egokitasuna. b) Arauaren helburuak. c) Konpondu nahi diren arazoak. d) Egon daitezkeen irtenbide alternatiboak, erregulatuak eta ez-erregulatuak. 	<ul style="list-style-type: none"> a) La necesidad y oportunidad de su aprobación. b) Los objetivos de la norma. c) Los problemas que se pretenden solucionar. d) Las posibles soluciones alternativas, regulatorias y no regulatorias.
Aurrekoa betez, eta prozedurarekin hasi baino lehen, ebazpen honen bidez herritarrei dei egiten zaie eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten, HILABETEKO epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita. Informazio hori Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da.	En cumplimiento de lo anterior, y con carácter previo a su elaboración, por medio de la presente Resolución se invita a la ciudadanía a que, durante el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente al de su inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo que será publicado en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica del Gobierno Vasco.

Vitoria-Gasteizen, izenpe elektronikokoaren datan.

Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica

Oscar Trobo Trasahedo
Zerbitzu zuzendaria
Director de Servicios



ANEXO

Proyecto de Decreto por el que se regula el Premio «Manuel de Irujo» de Justicia. Consulta pública previa.

1. Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

La denominación del premio responde a la memoria de D. Manuel de Irujo y Ollo, nacido en Lizarra-Estella el 25 de septiembre de 1891. Fue Ministro de Justicia de la II República Española y su trayectoria institucional y personal estuvo marcada por una defensa firme de la igualdad social, las libertades individuales, la democracia política, la Justicia, el Estado de Derecho y la independencia del Poder Judicial, incluso en circunstancias históricas extremadamente adversas.

El Gobierno vasco creó este premio en el año 2002 con la finalidad de reconocer el trabajo de las personas o colectivos que hubieran destacado en su trabajo o trayectoria personal por la defensa de la justicia y sus valores. El último premio otorgado se produjo en 2010 sin que, desde entonces, se haya vuelto a convocar ni se haya aprobado una regulación estable que ordene este reconocimiento.

Esta ausencia de una regulación normativa específica y permanente ha impedido la continuidad de un galardón pese a que su sentido y finalidad resultan hoy plenamente vigentes teniendo en cuenta el contexto social y jurídico al que el Derecho se ha visto progresivamente desplazado, alejándolo de su función garantista y de su vinculación con la dignidad humana y la libertad. En este marco, la figura de Manuel de Irujo representa una defensa constante y coherente del Derecho y de la Justicia como pilar de la acción política, social y económica, apostando siempre por soluciones pacíficas y jurídicas para la resolución de los conflictos. Por ello, con esta iniciativa se pretende dotar al premio de una regulación estable que permita su convocatoria periódica y facilite el reconocimiento y la visibilización de trayectorias personales o colectivas vinculadas al ámbito de la Justicia y del Estado de Derecho.

2. Necesidad y oportunidad de su aprobación.

El 29 de diciembre de 2023 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, reguladora del régimen de subvenciones de Euskadi (En adelante LRRS), cuyo artículo 3.2 b), excluye de su aplicación los premios que se otorguen sin la previa solicitud de la persona interesada, entre los cuales estaría el presente premio. Sin embargo, en observancia del principio general de igualdad resultan aplicables a su gestión y otorgamiento los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia y eficiencia recogidos en el artículo 7 de la precitada norma.

Hasta el año 2010, el premio «Manuel de Irujo» de Justicia fue convocado y regulado mediante Orden de la persona titular del departamento competente en materia de Justicia, sin contar con una regulación normativa de carácter estable.

La situación actual pone de manifiesto la necesidad de recuperar este Premio «Manuel de Irujo» de Justicia y dotarlo de una regulación mediante decreto, que garantice su continuidad, refuerce la seguridad jurídica del procedimiento y asegure la adecuación de su concesión a los principios que informan la actuación pública

3. Objetivos de la norma.

El proyecto de Decreto tiene por objeto regular la concesión del Premio «Manuel de Irujo» de Justicia, cuya finalidad es destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, cuya trayectoria personal o profesional haya supuesto una contribución relevante en el ámbito de la Justicia y de los valores y principios que la inspiran, así como en la contribución al desarrollo del Derecho en cualquiera de sus disciplinas o especialidades.

4. Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados anteriores, la elaboración de una medida específica de carácter normativo se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.

ERANSKINA

Dekretu proiektua, Justiziako «Manuel de Irujo» saria arautzen duena. Aurretizko kontsulta publikoa.

1. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Sariaren izena Manuel de Irujo y Olo jauna omentzeko egiten da; Lizarran, 1891ko irailaren 25ean jaioa. Espainiako II. Errepublikako Justizia ministro izan zen, eta haren ibilbide instituzional eta pertsonala berdintasun sozialaren, askatasun indibidualen, demokrazia politikoaren, justiziaren, Zuzenbide Estatuaren eta Botere Judizialaren independentziaren defentsa irmoak markatu zuen, baita oso kontrako egoera historikoetan ere.

Eusko Jaurlaritzak 2002. urtean sortu zuen saria, beren lanean edo ibilbide pertsonalean Justiziaren eta haren balioen defentsan nabarmendu diren pertsonen edo kolektiboen lana aitortzeko. Saria azkenekoz, 2010ean eman zen, eta harrezkero ez da berriz deialdirik egin eta ez da onartu aintzatespen hori agintzen duen erregulazio egonkorrik.

Araudi espezifiko eta iraunkorrik ez izateak eragotzi egin du sariak jarraipen bat izatea, nahiz eta oraindik premiazkoa ikusten den sariaren izaera, batez ere kontutan izaten badugu gaur egun Zuzenbidea nola aldendu den bere berme-eginkizunetik eta giza duintasunaren eta askatasunarekin duen loturatik. Testuinguru horretan, Manuel de Irujoren figura erdigunera ekarri behar dugu, Zuzenbidearen eta Justiziaren etengabeko defentsa koherentea irudikatzen baitu, ekintza politiko, sozial eta ekonomikoaren zutabe gisa, betiere gatazkak konpontzeko konponbide baketsu eta juridikoen aldeko apustua eginez. Horregatik, ekimen honen bidez, sariari erregulazio egonkor bat eman nahi zaio, dagokionean deialdia egin ahal izateko eta justiziaren eta zuzenbide-estatuaren eremuari lotutako ibilbide pertsonalak edo kolektiboak aitortzea eta ikusaraztea errazteko.

2. Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

2023ko abenduaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa (aurrerantzean, DAEL). Lege horren 3.2 b) artikulua haren aplikaziotik kanpo uzten ditu onuradunak eskatu gabe ematen diren sariak, eta horien artean egongo litzateke sari hau. Hala ere, berdintasun-printzipio orokorra betez, printzipio hauek aplikatu behar zaizkie kudeaketari eta esleipenari: publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia, aipatutako arauaren 7. artikuluan jasoak.

2010. urtera arte, Justiziako «Manuel de Irujo» saria justizia-arloan eskumena zuen saileko titularraren agindu bidez deitu eta arautu zen, xedapen orokor gabe.

Gaur egungo egoerak, ordea, agerian uzten du beharrezkoa dela Justiziaren «Manuel de Irujo» saria berreskuratzea eta dekretu bidez arautzea, sariaren jarraipena bermatzeko, prozeduraren segurtasun juridikoa indartzeko eta saria jarduketa publikoa gidatzen duten printzipioetara egokitzen dela bermatzeko.

3. Arauaren helburuak.

Dekretu-proiektuaren xedea da Justiziako «Manuel de Irujo» saria arautzea. Sari horren bidez, pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuen jarduna publikoki nabarmendu eta aitortu nahi da, beti ere Justiziaren eta berau inspiratzen duten balio eta printzipioen eremuan haien ibilbide pertsonal edo profesionalak ekarpen handia egin badu, bai eta Zuzenbidea garatzen laguntzean ere, edozein diziplina edo espezialitatetan.

4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurreko apartatuetan azaldutako inguruabarrak direla eta, beharrezkotzat jotzen da xedapen orokor arauemaile bat egitea, ezin izan baita bestelako irtenbide arautzailerik edo ez-arautzailerik hauteman.